

Arabako metalgintzak argi esan dio SEAr nahikoa dela eta hitzarmen duin bat behar duela orain

Gaur Arabako metalgintzako lehenengo greba eguna izan da eta oso jarraipen garrantzitsua izan du enpresa handi zein txikietan. Horrekin, sektoreak mezu argia helarazi dio SEA patronalari: Nahikoa da, hitzarmen duin bat orain! Eguerdiko manifestaldian ere, milaka eta milaka pertsonak parte hartu dute, egun historiko honen isla moduan.

Gogorarazi nahi dugu, apirilaren 8an 5 sindikatuk deitutako lanuztea lehenengo pausua izan zela langileen aktibazioan eta erraztu egin zuela orain greben fasean sartzea, gaur hasi dena, modu ezin hobean gainera. Izan ere, Arabako metalgintzako langileak grebara deituta zeuden eta LABen ustez jarraipena oso garrantzitsua izan da:

Grebak eragin handia izan du enpresa handienetan: Mercedeseko produkzioa ohikoaren 1/3 bat izan da gutxi-gorabehera, SIDENORreko sekzio batzuk produkziotik gabe egon dira, TUBOS REUNIDOSen bezala, AERNNOVAn ere nabaria izan da sekzio batzuetan eta TUBACEXen produkzioa geldirik egon da. Mercedesi dagokionez, salatu nahi dugu enpresak ez diela sartzen utzi greba komiteko kideei, grebarako eskubidea urratuz. Hori dela eta, sindikatuok salatu egingo dugu gertaera hau.

Gainontzeko enpresetako askotan, ertainak eta txikiak, jarraipena masiboa izan da : Ferrovial Servicios (Michelin), Condesa Fabril, SDA Factory, Alestis, TLAn, Talleres Legutiano, Elecnor, Talleres Betoño, Laminaciones Arregui – Urbina, Detesa,...

Esan dezakegu egun historikoa izan dela Arabako metalgintzan, sektoreak masiboki egin duela bat grebarekin eta milaka eta milaka lagunek parte hartu dutela eguerdiko manifestaldian. Gasteizko manifestazio jendetsuenen pareko izan da gaurkoa, SEArekin sasi-datu tamalgarriak agerian utziz. Orain, pilota bere teilatuan dago berriro, sektoreak aldarrikapenekin bat egin baitu aktiboki:

- Soldata igoera duinak, langileen erosahalmenari eutsi ahal izateko eta bajan egonda soldata ez galtzeko.
- Lanaldia jaitsi eta bestelako neurriak, baimenetan eta abar, pertsonak erdigunean jartzeko eta zaintza lanei heltzeko, kontziliazioa eta erantzukidetasuna erraztuz.
- Prekaritatearekin amaitzea: subrogazio eraginkorra azpikontratetan, ABLEei eta ebentualitateari mugak jartzea,...
- Neurri eraginkorrak berdintasun errealarari begira, emakumeen eta beste kolektibo batzuen diskriminazioarekin bukatzeko.
- Neurri eraginkorrak lan osasunean, sektorean urtero ia 2.000 lan istripu baitaude.

Horregatik, SEA patronalak konpromiso irmoak hartu behar ditu, inobilismoa alde batera utzita eta sektoreak dituen arazoei erantzun duen hitzarmen bat adosteko. Edonola ere, SEAk jarrera arduragabea mantentzen duen bitartean sektoreak borrokan jarraituko du eta hurrengo astean beste 2 greba egun deituta daude, maiatzaren 24 eta 26an. LABek deialdi horietan, gaur bezala, langileak modu masiboan parte hartzera deitzen ditu, borrokaren bidez lortuko baitugu metalgintzako hitzarmen duin bat.